

EUSKERAZALEAK

IRAKURLEAI OARRA

Euskaldunik geienok berezkoa dogu euskaldun izatea.

Aita-amen ondoan, etxeko beroan, auzokide ta lagunartean... buruauste aundi barik, etxe-inguruan ikasia dogu euskerea, dakigun gitxi ta urria.

Ez gara, ba, alegindu, barrurago jo eta ez dakiguna ikasten, dakiguna lantzen edo landuten. Dakigunaren jabe neke aundi barik egin gara.

Guk, umetarik euskaldunok, alpertzarrak izan garala autortu bear; eta betidanik erdel-iturrietako ura besterik ez dauala edan eta, euskerea ikastea gatxa dala, sailla dala, eta olakoak esanik burua egapera sartzea zera cia: oillokeria, biotzondoan indar bultzagillarik eza.

Gure izkuntzea orren gogorra eta neketsua ete da ba?

Gurea, txiñoena, errusiarrena zein japoieraz ikasteko; arda eta pipeari uko egiteko eta norberaren gurariz barau-aldi aundiak egiteko, indarra bear cia, indar berezia.

Euskerea ikastea lan gogorregia dala, neketsua ta astuna dala?

Ez uste orren gogorra eta latza danik, eta egiztatzeko, irakur begizue adiskide barri ez-ezagun batek Wim Jansen'ek, Holandar euskaldunak Holancia'tik igorri daustan eskutitz ezta. Ezertxu be aldatu barik bir-idazten dogu.

LANDAJUELA'tar A.k

ESKUTITZA

10- 5- 1978

KAIXO ANDONI:

Biotzetiko eskerrak ematen dizkizut zure eskutitzagaitik. Atzo artu det eta bereala erantzun nai dizut.

Lenengo, ez gaituzula ezagutzen, aukeztu nai dizut.

Ni ogei ta amar urte ditut eta ezkondua naiz.

Nere emaztearekin Lisse'n bizi naiz eta guk amaika illebeteko semetxoa degu. Nere emaztea Italiakoa da ta arrek «Marisa» izena du. Semetxoak «Remo» izena du.

Bi urte joan da egon gerala Euskalerrian. Donostia'ra ta Deba'ra joan giñan ta txango asko egin genituen Gipuzkoan eta Bizkaian ere. Egun bat Bilbo'n egon giñan; beste egun batean Santimamiñeko kobak ikusi genituen. Donostian euskal gramatika ta iztegi batzuek erosi nituen eta gero ikasten asi nintzan zure izkuntza polita. Orain arte liburu utsez ika-sirik, ez det ondo idazten euskeraz, euskal joskera oso zailla da-ta. Baiña, irakurtzean asko ulertzen det eta zure eskutitza dana ulertu det.

Holanda'n ondo bizi gera, askatasuna degu ta gure izkuntza itz egiten degu beti. Egiaz ez dakit nola bizi zeraten Euskalerrian, or ez naizelako iñoiz bizi izan. Nik uste det lotsagarria den ez erabiltze euskal-izkuntza eguneroko bearrentzat! Itxaropenean gelditzen naiz gaurko gobernua Madrid'en biurtuko dizkizuen antxiñako askatasuna ta eskubide guztiak.

Barkatu egin bearko didazu oker asko egiten ba-ditut nere lenengo idazkietan euskeraz, baiña erakusten jarraitu ba-didazu oker guztiak, euskera laisterrago ikasiko det.

Barri ta albista guztiak Euzkadi'tik oargarriak zaizkit.

Zure erantzunaren gelditzen naiz ta zuri ta zure etxekoai nere agur beroena bidaltzen dizuet.

AGUR!

WIM JANSEN